txintxarri

2022-01-28 OSTIRALA / 1572. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM



TXINTXARRI

Gogoetarako antzezlan bat

Tanttaka Teatroak Ivon Martinic idazle kroaziarraren 'Mi hijo solo camina un poco más lento' antzeztu du kultur etxean / 5

Zoriz jokatu eta garaitu

Jon Arroyo Alkorta izan da 'Biba Egunean Behin' finaleko garailea. 2.000 euroko bidaia txartela irabazi du / 6

Azken boladan herrian egin dituzten lapurretak arbuiatu dituzte dendariek eta herritarrek / 2

Otsaileko ikastaroen eskaintza jakinarazi du Lasarte-Oriako KZ Guneak. Interesatuek izena eman dezakete / 3

Urtarrilean, orain arte, 1.935 kutsatze atzeman dituzte Lasarte-Orian; pandemia hasi zenetik, guztira, 5.210 / 4

22. Korrika prestatzen ari da buru-belarri Lasarte-Oriako AEK euskaltegia; petoak salgai jarri ditu / 7

Defentsan egindako akatsengatik, Eguzki ISU Leihoak taldeak ezin izan du punturik lortu azken partidan / 10

Astigarraga Mundarrori 57-39 irabazita, Ostadarrek ederki itxi du lehen itzulia / 12

MERKEALDIA
+ 2. BETAURREKOAK OPARI



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

multiópticas
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

Lapurretak gaitzetsi, eta elkartasuna adierazi

Aterpeak deituta elkarretaratzea egin dute dendari eta herritarrek. Azken boladan herrian egin diren lapurretak salatzeko batu dira, eta kaltetuei elkartasuna adierazi diete ere. Horrelako gertaerak ikertzeko baliabideak eskatu dizkiote udalari eta Eusko Jaurlaritzari

Txintxarri

Adierazpen goibelak entzun zitezkeen astearte eguerdian Okendo plazan bildutako dendarien artean. Azkenaldiko lapurretak gaitzesteko batu dira. Negozioetako langileez gain, herritarrak ere bertaratu dira hitzordura, eta denek elkarrekin salatu dituzte aipatu gertaerak. Ramon Ormazabalek eta Miguek Angel Prietok hartu dute hitza Aterpea merkatarien elkartearen izenean; adierazpen bat irakurri dute, lehenak euskaraz, eta bigarrenak, aldiz, gaztelaniaz.

Azken boladan Lasarte-Orian egin diren lapurretak izan dituzte hizpide, baina bereziki iragan asteburuan gertatutakoak. Ez gainerakoekin alderatuta bestelako bereizketarik egin nahian, azken horiek asko izan direlako baizik; hamar bat azaldu dutenez. Erabateko gaitzespena azaldu dute, eta babes gehiago eskatu diote udalari eta Eusko Jaurlaritzari: "Horrelako gertaerak ikertzeko baliabideak eskatzen dizkiegu, errudunak epailearen esku gera daitezen". Lapurretak salatu eta arbuiatzeaz gain, elkartasuna ere adierazi diete horiek jasan dituzten establezimenduen jabeei.



Lasarte-Oriako dendari eta herritarrak lapurretak arbuiatzeko agerraldian. TXINTXARRI

Kaltetuekin hizketan

Okendon egin duten elkarretaratze hori baliatu du TXINTXARRI-k asteburuan lapurreta jasan duen Orbela belar dendako Arantxa Otaegirekin hitz egiteko. Igande goizaldean lapurtu zuten aipatu komertzio horretan, eta bertako jabeak azaldu du "segurtasun eza" sortu diola gehienbat gertatutakoak: "Herri zentroan dago gure establezimendua eta beti pentsatzen duzu horrelako gertaerak sufritzea zailagoa izan daitekeela. Baina egun bizitzen ari garen egoerak ere erraztu dezake kaskoan ere lapurretak gertatzea". Azaldu du COVID-19ak eragindako osasun egoera dela eta tabernak 01:00etarako itxita daudenez, goizeko ordu txikietan kalean apenas dagoela mugimendurik, eta horrek horrelako ekintzak egiteko aukera gehiago sor ditzakeela.

Eragin dioten kalte materialaz gain, seguruarekin ere atsekabea azaldu du Otaegik: "Lapurreta goizean goiz gertatu bazen ere, arratsaldera arte ez zuten inor bidali. Eurak izan dira ezinegon handiena eragin didatenak".

Segurtasun lanetan ari diren udaltzain eta ertzainak aktiboago egon daitezen nahi du Otaegik. Hor jarri nahi izan du fokua: "Agian, goizeko 03:00etatik 06:00etara zaintza indartu beharko da". Arazoaren muina, ordea, beste bat da belar dendako jabearentzat: "Lapurretan ari direnak behar bat asetzeko ari dira, eta arazo horri erreparatu behar zaiola uste dut, hori ere zaindu behar da".

Neurriak hartzeko eskaera, PPk



Alejandro Saenz. L-OKO PP

Lasarte-Oriako udaltzaingoa "indartu eta modernizatzeko" eskatu dio Alejandro Saenz PPko ordezkariak udalari. Horretarako, giza baliabide gehiago, baliabide material hobeak eta prebentzio jarduera zein protokolo eraginkorragoak eskatu ditu udaltzainentzat. Hala, Eusko Jaurlaritzari Ertzaintzaren presentzia handiagoa eskatzea ere galdegin dio. Azken asteetan herrian gertatzen ari diren lapurreten harira egin ditu eskaera horiek.

Aipatu du Lasarte-Orian "ohikoa" dela etxebizitzetan, denda, garaje eta ibilgailuetan lapurretak egitea; azpimarratu du azken aldian maizago gertatzen ari direla horrelakoak.

Azken urteotan, etxe atari eta igogailuetan, lapurreten berri emateko eta segurtasunarekin lotutako oharrak gogoratzeko Ertzaintzak jarritako afixak aipatu ditu: "Ez da harritzekoa; izan ere, saltokietan kristal eta pertsiana hautsiak ikusi ditugu, eta haietatik atera da kutxako dirua, baita trastelekuetako eta lurpeko garajeetako sarraila behartuak ere, hain ikusgarriak ez izan arren, haietatik motozikletak, bizikletak eta era guztietako tresnak lapurtu dituzte".

Zumaburu auzoko drogeria batean gertatutako lapurretari egin dio azpimarra berezia. Jakinarazi du indarkeriaz egin dutela lapurreta, egun argiz. Gaineratu du ez dela horrelako egoera gertatzen den lehen aldia: "Segurtasuna gizakiaren eta gizarteen oinarrizko behar bat da, eta, alde horretatik, gobernu-taldeak, neurriak hartu behar ditu, gure herriko gaizkileen jarduera indartzen duen kontrol ezaren sentsazioarekin amaitzeko".

EAJ-PNVren aurkako pintaketa gaitzetsi du PSE-EEk

Ekintza "onartezina" dela azpimarratu du alderdi sozialistak TXINTXARRI-ri bidalitako oharrean

Txintxarri

PSE-EEk arbuiatu egin du EAJ-PNV alderdiaren aurka iragan astean egindako pintaketa. "Onartezina da herriaren sektore garrantzitsu bat ordezkatzen duen talde politikoen aurkako ekintzak egitea".

Alderdi sozialistak azpimarratu du "beharrezkoa eta positiboa" dela desadostasun politikoa, baina are premiazkoagoak direla "beste era batera pentsatzen dutenekiko tolerantzia eta errespetua". Pintaketa horren harira, adierazi du ezin dituela gisa horretako ekintzak onartu: "Erakusten dute gure gizarteko zenbait sektorek ez dituztela beharrezko urratsak egin bizikidetza demokratikoaren garai berria irekitzeko".

Pasa den astean eman zuen gertatutakoaren berri Lasarte-Oriako EAJ-PNVk; eurek ere ohar bat helarazi zieten komunikabideei.

Mendebaldeko Saharan bizi diren errefuxiatuei laguntzeko deialdia



Aurretik egindako bilketako irudia. S.E.L.O.

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak janaria bilduko du herrialde horretan bizi diren errefuxiatuei bidaltzeko. Eroski eta SuperBM supermerkatuetan postuak jarriko dituzte larunbat honetan, hilak 29, 10:00etatik 20:00etara, bertan erosketak egiten dituzten bezeroek laguntzea errazago izan dezaten. Hauek dira eman ditzaketen produktuak: arroza, azukrea, konpresak, kontserbak, lekaleak (babarrunak, dilistak, garbantzuak...) eta pasta.

Hilaren 24tik 28ra gauza bera egiten ari dira, herriko ikastetxeetan.

Otsaileko ikastaroak aurkeztu ditu KZ Guneak

Aurrez aurrekoak, bideokonferentzia bidezkoak eta urrunekoak izango dira saioak, eta otsailean hasi eta amaituko dira ia guztiak. Gehienek lau orduko iraupena izango dute, baina izango dira luzeagoak ere. Izen ematea egin daiteke dagoeneko

Txintxarri

Lasarte-Oriako KZ Guneak herritarren prestakuntzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du. Horrela, hainbat formakuntza saioren eskaintza egin du. Datorren hilabetean (otsailean) hasi eta amaituko dira ia guztiak, eta aurrez aurrekoak, bideokonferentzia bidezkoak eta urrunekoak izango dira.

Ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrek izena eman beharko dute, eta horretarako, aukera ezberdinak dituzte. KZ Gunearen bulegora joan daitezke, baina koronabirusa dela eta, bertaratze hori ere aurrez hitzartu egin behar dela iragarri dute. Horretarako 943-02 36 60 telefono zenbakira deitu behar da. Telefono horretara deituta ere egin daiteke izen-ematea. *Www.kzgunea.eus* atariaren bidez ere egin daiteke inskripzioa. Ikastaroan izena emateko, ordea, erabiltzaile izan behar da. KZ Gunean edo ikastaroetan izena emateko laguntza behar dutenek honako esteka bisita dezakete: *https://www.youtube.com/watch?v=ybBYBxPENMM.*

Ikastaroen zerrenda osoa TXINTXARRI-ren web atarian (*www.txintxarri.eus*) kontsultatu dezakete interesa duten herritarrek.

Hainbat ikastaroren zerrenda

Bideokonferentzia bidezkoak

- Enplegua bilatzeko aplikazioak.Otsailaren 3an eta 4an, 11:00etatik 13:00etara. Gaztelaniaz.
- Mekanografia. Ikasi hutsetik. Otsailaren 25ean eta 28an, 11:00etatik 13:00etara. Gaztelaniaz.
- Google argazkiak. Antolatu lainoan zure argazki guztiak. Otsailaren 14an eta 15ean, 11:00etatik 13:00etara. Gaztelaniaz.
- Editatu bideoak zure smartphonean. Otsailaren 15ean eta 16an, 16:00etatik 18:00etara. Euskaraz.
- Editatu bideoak zure smartphonarekin. Otsailaren 22an eta 23an, 18:00etatik 20:00etara. Gaztelaniaz.

Aurrez aurrekoak

- WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean. Otsailaren 10ean eta 11n, 16:00etatik 18:00etara. Gaztelaniaz.
- Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi. Otsailaren 1etik 9ra (larunbat eta igandeak izan ezik), 16:00etatik 18:00etara. Gaztelaniaz.
- PC, teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu. Otsailaren 10etik 14ra (larunbat eta igandeak izan ezik), 11:00etatik 13:00etara. Gaztelaniaz.
- Oinarrizko interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi. Otsailaren 15etik 28ra (larunbat eta igandeak ezik), 11:00etatik 13:00etara. Gaztelaniaz.
- Ofimatika tresnak - LibreOffice. Otsailaren 14tik 25era (larunbat eta igandeak ezik), 18:00etatik 20:00etara. Gaztelaniaz.

Urrunekoak

- Ikasi HTML programatzen. Hogei orduko iraupena. Otsailaren 14tik martxoaren 3ra. Euskaraz.
- Pinterest. Zure inspirazio iturria. Lau orduko iraupena. Otsailaren 14tik 23ra. Gaztelaniaz.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Mangeradunak

Duela egun batzuk igande bazkalondo batez, gasolindegira joan nintzen autoa garbitzera. Premia zuen; handia, gainera, eta ez zegoen gehiago luzatzerik. Arratsalde freskoa zen, baina eguzki printza ahulek azala goxatzeko modukoa. Nire harridurarako ideia bera eduki zuten beste zenbait lagunek ere, eta garbitoki guztiak bete ziren. Mangera hartzearekin batera zerbaitek nire arreta piztu zuen. Txorrota maneiatzen ari ziren guztiak gizonak ziren. Lehenengo tokian edadetutako gizon bat zegoen bere edadetutako autoari urteak kendu nahian. Alboan, aita-semeak nituen. Semearen algarak entzuten nituen txorrotaren katua zapaltzearekin batera. Garbiketa dibertigarria. Beste aldean, berriz, gazte bat zegoen BMW zuri, eta, matrikulari erreparatuta, erosiberri batekin. Belaki batekin mimoz garbitzen ari zen autoaren zirrikitu guztietatik pasatuz, nik ahalegin handirik egin gabe garbitzen ditudan tokietatik; hagunak, esate baterako.


Burutik pasatu zitzaidan lehen ideia izan zen ea edadetutako gizon horrek mustuka hartuta, etxeko altzari zaharren gainean pilatzen den hautsa kentzen ibiltzen ote den. Edota aita-semeei txorrotarekin autoa garbitzea bezain dibertigarri egiten ote zaien fregonarekin etxeko zorua garbitzea. Edota gaztea BMWaren zirrikitu guztiak bezala garbitzen aritzen ote den sukaldeko altzarien zirrikituetan txertatzen den koipea. Hala izango al da, edo horiek guztiek hormen atzealdean emakume bat izango dute lan horiek guztiak egiteko, neskamea dela, ama dela edo neskalaguna? Bada horixe galdetzeko gogoarekin geratu nintzen.

Amaitu da doako erreklamazioak egiteko epea

4. generazioko telefonia mobilaren zerbitzuak (4G 800 MHz-eko bandan) Lurreko Telebista Digitalaren errezepzioan kalteak eragin zitzakeela iragarri zuen Lasarte-Oriako Udalak prestazioaren hasieran. Gerta zitezkeen kalteak doan konpontzeko sei hilabeteko epealdia zabaldu zuen Llega 800 entitateak, eta orain, hura hori amaitu dela iragarri dute, nahiz herritarrek maiatzera arte izango duten inzidentzien konponketa kosturik gabe eskatzeko aukera. Hala jakinarazi du udalak hedabideei bidalitako ohar baten bitartez.

Erabiltzaileen arretarako zentroaren telefono zenbakia ere ezagutarazi dute. Edozein inzidentziaren berri eman nahi duten herritarrek dei dezakete doako zenbaki honetara: 900 833 999.





Urtarrilaren 13tik 26ra 814 positibo diagnostikatu dituzte Lasarte-Orian. TXINTXARRI

Intzidentzia altua herrian, baina jaisten

Urtarrilaren 28an bilduko da LABI aholku batzordea, indarrean dauden neurri murriztaileekin zer egin erabakitzeko. Iñigo Urkullu lehendakariak horiek mantentzea gomendatu du. Bestalde, COVID ziurtagiriaren erabilera otsailaren 13ra arte luzatzea eskatuko du

Txintxarri

Nahi baino mantsoago, baina koronabirusaren seigarren olatuak indarra galtzen jarraitzen du. Intzidentzia tasa metatuari erreparatuz gero, agerikoa da jaitsiera: urtarrilaren 20an 5.907,06 kasukoa zen 100.000 biztanleko, eta astebete geroago, 4.274,09koa. Edonola ere, adierazle hori oso altua da oraindik, eta 150eko mugatik ikaragarri urrun dago.

Urtarrilaren 20tik 26ra 369 kutsatze diagnostikatu zituzten gurean, 13tik 19ra baino 76 gutxiago. Egunez egun detektatzen ari diren kasuak ere, hortaz, behera doaz. Hilaren 26ra arteko datuak kontsultatu ahal izan ditu TXINTXARRI aldizkariak zenbakia inprentara bidali aurretik, eta horien arabera, urteko lehen hilabetean 1.935 herritar kutsatu ditu koronabirusak. Pandemia lehertu zenetik, bukatzear den hori izaten ari da intzidentzia gehienekoa Lasarte-Orian, alde handiz gainera. Bigarrena iazko abendua izan zen: 942 kutsatze erregistratu zituzten orduan Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, ia mila gutxiago. Eta hirugarrena are urrunago dago: 2020ko azaroa izan zen, 275 kutsatzerekin.

Datu ofizialak eskuetan, 2020ko martxotik aurtengo urtarrilaren 26ra arte 5.120 positibo detektatu dituzte gure herrian. Omikron aldaeraren kutsakortasuna tarteko, horietatik herena baino gehiago (%38, zehazki) 2022ko lehen hilabetean erregistratu dituzte.

Eskualdeko gainerako bost udalerrien egoera antzekoa da, guztiek baitituzte intzidentzia tasa metatu oso altuak: Andoainek, 4.303,44 kasu 100.000 biztanleko; Astigarragak, 5.079,41; Hernanik, 3.990,26; Urnietak, 3.140,60; eta Usurbilek, 4.407,10. Euskal Autonomia Erkidegoko tasa 3.551,97koa izan da hilaren 26an.

2020KO MARTXOTIK GAUR EGUNERA ARTE 5.120 KUTSATZE ATZEMAN DITUZTE LASARTE-ORIAN

Neurri murriztaileak

Koronabirusaren intzidentziaren bilakaera "positiboa" izanda ere, Iñigo Urkullu lehendakariak nabarmendu du egoera epidemiologikoa "zaila" dela oraindik, eta horregatik, LABI aholku batzordeari gomendatu dio indarrean dauden neurri murriztaileak luzatzea. Organo horren mahai instituzionala hilaren 28an bilduko da, eta orduan erabakiko du mugak luzatzeari ala ez luzatzeari buruz. Hala egitekotan, ez dute aurreratu zenbat denboraz mantenduko dituzten jarraibideak. Horrez gain, lehendakariak aurreratu du COVID ziurtagiriaren erabilera otsailaren 13ra arte luzatzeko baimena eskatuko diola EAEko Auzitegi Nagusiari. Hotel, ostatu eta joko aretoetan eskatzea ere galdegingo dio.



Maialen de Miguel botikariak eman ditu jarraibideak. TXINTXARRI

Antigenoen testa zuzen nola egin

Azken asteetan, herritar askok eta askok egin behar izan ditugu antigeno testak gure etxeetan, gertukoek positibo eman dutelako, bazkari edo afari berezien aurretik birusa dugun ala ez jakiteko, ingurukoak babesten saiatzeko... Farmazietan proba horiek erosi eta gero, ordea, ohikoa da jarraibideak irakurrita ere zalantzak izatea. De Miguel farmaziako langileengana jo du TXINTXARRI-k, gisa horretako test bat nola egin behar den jakiteko.

Maialen de Miguel botikariak eman ditu probari buruzko jarraibideak, zehaztasunez eta pazientziaz. Aldizkariko kazetarietako bat aurkeztu da proba egiteko boluntario.

Testaren kaxatxo barruan datozen jarraibideak irakurtzeko gomendioa egin du De Miguelek lehenik, eta horiekin batera datozen materialak aurkeztu: hisopoa (sudurreko antigenoen lagina hartzen duen makiltxoa), likido erreaktiboa dakarren hodia (lagina hartu duen eskuilatxoa sartzeko) eta testa.

Hoditxoa prest utzita, eskuilatxoa bi sudurzuloetan sartu behar da. Farmazialariak azaldu du nahikoa dela bi edo hiru zentimetro sartzearekin, eta sudurzulo bakoitzean bosna buelta eman behar direla. Behin pauso horiek eginda, makiltxoa hodian sartu, eta bertan eduki behar da minutu batez. Hoditxoaren pareten aurka igurztea garrantzitsua dela azpimarratu du, antigenoak likidora eror daitezen. Denbora tarte hori igarota, makila atera, eta hoditxoaren tapa itxi ostean, hiru tanta bota behar dira testera; s hizkiarekin markatuta agertzen den zulotxora, eta gehienez ordu laurden bat itxaron. Denbora tarte horretan agertuko da emaitza. C hizkiaren parean marratxoa agertzeak esan nahi du testa zuzen egin dela; T hizkiaren parean agertzen bada, ordea, positiboa litzateke emaitza, baita marratxo hori arina izanda ere. Kasu horretan, osasun zentrora deitu eta konfinatzea ezinbestekoa dela argitu du De Miguelek.

Zorionez, negatibo eman du TXINTXARRI-ko kazetariak. Grabaketa bukatu eta gero, farmazialariak zehaztu du hondakinak errefusa biltzeko edukiontzira bota behar direla.

Antigenoen testa zuzen nola egin jakiteko, QR bidezko bideo hau ikus dezakezu

Urtebetetze festa ez hain zoriontsu bat

Tanttaka Teatroak Ivor Martianic idazle kroaziarraren 'Mi hijo solo camina un poco más lento' antzeztu du Manuel Lekuona Kultur Etxean. Gogoetarako galdera bat proposatzen du obrak: nola onartu bestea, nahiz eta maite izan, lagundu ezin duguna edo ez dakiguna

Txintxarri

Familia harremanak ardatz ditu Tanttaka Teatroak hilaren 22an Manuel Lekuona Kultur Etxera ekarritako *Mi hijo solo camina un poco más lento* antzezlanak. Herritar ugari joan zen Ivor Martianic idazle kroaziarraren lanaren gaztelaniazko egokitzapena ikustera. Fernando Bernuesek zuzendutako obrak aktore ezagunez bete zuen oholtza: Mireia Gabilondo, Klara Badiola, Jose Ramon Soroiz, Martxelo Rubio, Asier Hernandez, Dorleta Urretabizkaia edo *Goazen* telesailean aritutako Miren Arrieta eta Maria Redondo, besteak beste.

Eszenarioan etxebizitza oso bat atondu zuten: sukaldea txoko batean, komuneko konketa, logeletako besaulki edo oheak, eta etxe guztien bihotza den hori irudikatzeko sofa eta lanpara. Atzealdean, hormara begira aulki ilara bat zegoen, eta haietako bakoitzean eserita, antzezlaneko pertsonaia guztiak, ilunpean. Obra hastearekin batera, batzuk altxa, eta aurrealdera joan ziren, argiztatutako zenbait gunetan jarriz. Eszenatik atera ahala, aulkietara bueltatzen ziren. Txoko guzti horietan hainbat egoera lotzen joan ziren, batzuk, barregarriak, beste batzuk, krudelak, hunkigarriak...

Guztiek bat egingo dute Brankoren 25. urtebetetzean. Berarentzat ez da egun zoriontsua ezta Mia amarentzat ere. Endekapenezko gaitz bat du gazteak eta jada ez da ibiltzeko gai, gurpil aulkia behar du. Mia oso kezkatuta dago, lagundu egin nahi dio, baina ez daki nola. Ez du horretan pentsatzeko denbora gehiegi ere. Adineko ama zaindu behar du, senarra uztera ausartzen ez den ahizpa jasan, alaba maitemindu egin da... Isildutako gauzei buruz hitz egiteko abagunea izango da festa: oroimena, beldurra, bakardadea, zoramena, gaixotasuna ezberdina dena onartzea, familia…



Euskal aktore ezagunek osatzen dute antzezlaneko taldea. TXINTXARRI



Brankoren urtebetetzeak senideak eta lagunak batuko ditu etxean. TXINTXARRI

Badatoz Emakumeen Zentroko ikastaroak

Otsailetik ekainera bitarte, Emakumeen Zentroko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute lasarteoriatarrek. Hilaren 31tik 3ra egin beharko da izen-ematea, zentroan bertan. Ordainpeko ikastaroen prezioak lauhilekoak direla ohartarazi dute udal ordezkariek

Txintxarri

Iazko ikasturteko ikastaro berdinak proposatu ditu aurtengoan Lasarte-Oriako Emakumeen Zentroak. Eskaintza bera egin dute herritarren eskaerari erantzuteko. Ostegun eguerdian, urtarrilak 27, egin dute aurkezpena Agustin Valdivia alkateak eta Lourdes Acevedo alkateordeak. Maite Iglesias Hezkuntza saileko zinegotziak ezin izan du bertaratu, gaixoaldiagatik.

Prezioak ere iazko berak izango dira. Horiek mantentzeko udalak egin duen esfortzua nabarmendu du alkateak. Azaldu du, KPIa (kontsumo prezioen indizea) nabarmen handitu den arren eta ikastaroetan parte hartu dezakeen jende kopurua murriztu arren (koronabirusa dela eta), prezioak mantentzeko konpromisoa hartu dutela.



Lourdes Acevedo alkateordea eta Agustin Valdivia alkatea, ikastaroak aurkezten. TXINTXARRI

Otsailaren 31n zabalduko da izen emate epea eta 2ra arte izango dute interesatuek horretarako aukera. Emakumeen Zentrora joan beharko dute, honako ordutegian: 09:00etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era. Ohi moduan, izen-emateek plaza kopuruak gainditzen badituzte, zozka bidez esleituko dira. Otsailaren 4an egingo dute zozka, 12:00etan, Emakumeen Zentroan. Halere, COVID-19a dela eta herritarrak ezingo dira bertaratu.

Doako ikastaroak

Herritarretza doako hainbat ikastaro ere izango dira: Gorputza entzuten eta atenditzen ikasiz; Jantzi konponketak eta patroiak; Kantua; Egunerokorako psikologia; Batuka eta Gure kultura orokorra lantzen.

Ordainpeko ikastaroen prezioak

Antzerkia. Astelehenetan, 17:30etik 19:30era. Erroldatuentzat 51 euro.
Yoga. Ostegunetan, 09:30etik 11:00etara. Erroldatuentzat 38,25 euro.
Biodantza. Asteartetan, 09:30etik 11:00etara. Erroldatuentzat 38,25 euro.
Ekulanak. Astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara. Erroldatuentzat 51,00 euro.
Ehoziriak. Asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara. Erroldatuentzat 43,96 euro.
Tai-Xia. Asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara. Erroldatuentzat 21,98 euro.
Sabel dantza. Ostiraletan, 10:00etatik 11:00etara. Erroldatuentzat 30,60 euro.
Hipopresiboak. Ostegunetan, 14:30etik 15:30era. Erroldatuentzat 44,55 euro.

"Etxetik irteteko zorian harrapatu ninduen; dena alde izan nuen"

JON ARROYO ALKORTA 'BIBA EGUNEAN BEHIN' FINALEKO GARAILEA

'Biba Egunean Behin' finaleko garailea da herritarra. Une batetik bestera, bat-batean erabaki zuen lehian parte hartzea eta finalik onena jokatuta, bidaia txartel bat irabazi du




Jon Arroyo, 'Biba Egunean Behin' finaleko garaialea. TXINTXARRI

Txintxarri

Berokia jantzita, etxetik kalera irteteko puntu-puntuan harrapatu zuen *Biba Egunean Behin* lehiaketak Jon Arroyo Alkorta (Lasarte-Oria, 1981) herritarra. Euskal Telebistako lehen katean lehiaketa hastera zihoala iragartzen ari zirela entzun, eta kalera joan beharrean, etxean geratu eta jokoan parte hartzea erabaki zuen; sakelakoa eskuetan hartuta, "inolako asmorik gabe", hitzordu horren parte izatea besterik ez.

Jarraikortasunez parte hartu du Arroyok orain arteko edizioetan; aitortu du "gustura" aritzen dela, joko-taldeetan sortzen den lehia atsegin duela. Horretarako behintzat ematen baitu aukera Egunean Behinek, lehia sanoak sortzekoa. Jokoari egunero-egunero minutu bat edo bi eskaintzea besterik exijitzen ez dionez, inguru hurbileko lehiakideekin sortzen den giroak bultzatuta jokatzen du Egunean Behinen: "Zubietako eskola txikiko ikasle dira seme-alabak, eta bertako gainerako gurasoekin batera talde bat osatu genuen. Sailkapen horretan goiko postuetan aritzearekin konformatzen naiz", azaldu du txantxa eginez.

Zortzigarren edizioaren amaiera izan zen zuzeneko finala. Abenduaren 16an jokatu zen eta ia 29.000 lehiakidek parte hartu zuten aldi berean. "Sekulakoa" da Arroyorentzat kopuru hori. Horien artean aritu zen bera ere, eta final onena egin zuelako izan zen garaile. Kontatu du finalaren aurretik hiru txanda jokatu zituztela (parte hartzaile guztiei irekiak). Lehenengoan hamar galderak zuzen erantzun zituen, 43 segundoan. Bigarren emaitza zertxobait okerragoa izan zen; zortzi asmatu zituen ia minutu batean, baina hirugarrenean, berriz ere lortu zuen gora egitea; erantzun guztiak asmatu zituen 45 segundoan. Hiru partida horien ostean jokatu zen finala. Lehen hogei sailkatuek –hamazazpigarrena izan zen Arroyo– parte hartu zuten, eta edizioko irabazle Erik Gartzia batu zitzaien. Azken saio horretan berriz ere galdera guztiak zuzen erantzun zituen, 49 segudundoan. Bera izan zen finala jokatu zutenetatik hamarrak asmatu zituen bakarra, hortaz garailea.



Taldeetako partaideen artean sortzen den lehiak erakartzen du Arroyo. TXINTXARRI

Elkarrizketatu duen TXINTXARRIko kazetariarentzat harrigarria da hain denbora gutxian galdera guztiak zuzen erantzutea, eta abilezia horren inguruan ere galdetu dio. Azaldu du "dena alde" izan zuela: "Ezagutzen nituen gaien gaineko galderak egokitu zitzaizkidan, nahiz eta bizpahiru intuizioz erantzun nituen. Azken horiek zuzen erantzuten asmatu nuen".

Ez zuen imajinatu ere egin, etxeko atetik irteteko zorian egon ostean lehiaketako finaleko garaile izango zenik. Gogoratu du EiTBtik zuzenean deitu ziotenean ohartu zela lortu zuenaz: "Inolako pretentsiorik gabe jokatu nuen. Emaitzak ikusita gustura geratu nintzen, baina deia jaso nuenean, ezin nuen sinetsi. Gau horretan lo hartzea ere asko kosta zitzaidan".

Bidaia txartela opari

Finala irabaztearen truk, sari ederra egokitu zaio; 2000 euroko bidaia txartela jaso du opari. "Poz-pozik eta gustura" hartu du saria, nola bestela. Familiarekin bidaiatzeko erabiliko duela argitu du, nahiz eta oraindik ez duten erabaki nora joango diren. Etxekoek Paris aldera joateko proposamena egin diote, baina ez dute ezer zehaztu oraindik. Kontatu du sariak ez daukala iraungitze datarik, hortaz, ez dute bidaia berehalakoan prestatzeko inolako derrigortasunik.

"EGIN BEHARREKOA EGIN DUT. HEMENDIK AURRERA ERE ORAIN ARTE BEZALA, DISFRUTATZERA"

"EZIN NUEN SINETSI IRABAZLE NINTZELA. GAU HORRETAN LO HARTZEA ERE KOSTA ZITZAIDAN"

Bederatzigarrena ere ate joka

Datorren astelehenean, urtarrilaren 31n abiatuko da Egunean Behinen bederatzigarren edizioa. Arroyok badu jokatu eta "saltsa horretan" jarraitzeko gogoa. Saritu izateak inolako presiorik eragite ote dion galdetuta, ezetz erantzun du berehala: "Egin beharrekoa egin dut. Hemendik aurrera ere orain arte bezala, disfrutatzea eta ingurukoen aurretik sailkatzea izango da helburua", azaldu du barrez, berriz ere txantxa eginaz.

Korrikako petoak salgai jarri ditu AEK-k

Aurtengo udaberrian Euskal Herria alderik alde zeharkatuko duen lasterketa antolatzen buru-belarri dihardu AEK-k. Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegia ere hasi da lanean, eta eragileekin biltzen ari da, ostegunetan, zer eta nola egin zehazteko

Txintxarri

Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegia lan eta lan ari da apirilaren 8an Lasarte-Oriara iritsiko den 22. Korrikari harrera beroa prestatzeko. Koordinatzaile Iñaki Dorronsorok jakinarazi duenez, ostegunetan elkartzen hasi dira, bi astean behin, oraingoz. Geltoki kaleko 17. zenbakiko bulegoan biltzen dira, 18:00etan. Urtarrilaren 15ean egin zuten aurreneko batzordea, eta eragile "ugari" joan zirela nabarmendu du Dorronsorok. "Gustura aritu ginen, igartzen da herritarrak motibatuta daudela".

Lehen saio horretara joan ez zen elkarte edo norbanakoren batek parte hartu nahiko balu, euskaltegiko kideekin jarri beharko luke harremanetan. "Lasarteoriatar guztiak animatzen ditugu etortzera, Korrika denona da eta antolatuko ditugun ekintzak guztiontzat izango dira; polita eta garrantzitsua da ahalik eta lagun gehienek parte hartzea".



Salgai daude petoak. MUNTTERI-AEK

Horrez gain, Muntteri-AEK euskaltegiko kideek ezagutarazi dute dagoeneko eros daitezkeela 22. Korrikan parte hartzeko petoak, bost eurotan, eta baita material gehiago ere: kamisetak, jertseak, biserak... Ibilbideko kilometroak, berriz, otsailaren 1etik aurrera erreserbatu ahalko dituzte eragileek. "Dagoeneko jaso ditugu eskaera batzuk, eta poztu gara, horrek esan nahi duelako gogotsu daudela".

Martxoaren 31tik apirilaren 10era

Amurrion hasiko da 22. Korrika, Araban, martxoaren 31n, eta 11 egun geroago iritsiko da lekukoa helmugara, Donostiara, Gipuzkoako hiriburura. Bien bitartean, 2.180 kilometro egingo dituzte euskararen alde milaka lagunek. Esan bezala, Lasarte-Oriara apirilaren 8an iritsiko da, ostiralarekin, goizean goiz: AEK-k argitaratutako ordutegi zerrendaren arabera, 07:11n. Usurbildik etorriko da lekukoa, eta herria zeharkatu eta gero, Urnietarantz joango da.

AEK-k *Hitzekin* leloa aukeratu du 22. Korrikarako. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omendu ditu, "euskararen alde egindako lan guztiagatik".

Solaskide egitasmoan izena eman daiteke oraindik

Euskararen erabilera sustatzeko programan parte hartu nahi duten herritarrek urtarrilaren 30era arteko epea dute

Txintxarri

Euskaraz hitz egiteko guneak eta aukerak ematen ditu Solaskide egitasmoak. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren, herriko euskaltegien (Muntteri-AEK eta Udal Euskaltegia) eta Ttakun Kultur Elkartearen artean antolatu dute programa hori herrian, eta jakinarazi dute izena emateko epea irekita dagoela oraindik urtarrilaren 30era arte, igandez. Interesa duten herritarrak bi modutara apunta daitezke: 695 78 53 89 telefonora deituta edo *kultura@ttakun.eus* helbide elektronikora idatzita. "Euskara erabili eta bizi nahi duzuenok zalantzarik ez izan, eta animatu egitasmoan parte hartzera!", adierazi dute antolatzaileek.

'Bidelariak' eta 'Bidelagunak'

Solaskide egitasmoko partaideak era batekoak edo bestekoak izan daitezke: batetik, *Bidelariak*, euskara praktikatu nahi duten pertsonak; eta, bestetik, *Bidelagunak*, euskaraz aritzeko urratsak egiten ari direnei laguntzen dietenak. Taldetxotan biltzen dira, eta, normalean, kafe baten bueltan, osteratxo bat emanez edo zaletasunak partekatzen aritzen dira euskaraz, giro ederrean.

Antolatzaileen arabera, *Bidelagunen* premia dute batez ere, alegia, *Bidelariei* euskaraz pausoak ematen lagunduko dieten pertsonenak. "Hasiberriak direnei bultzadatxo bat emango diezuenon bila ari gara".

Solaskide, Solaslagun, Berbalagun, Mintzalagun... Herrien eta euskalkien arabera hartzen du izena egitasmoak. Lehen taldeak 1993an sortu zituen Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkarteak; ordutik, milaka euskaldunek hautatu dute euskaraz bizi eta aritzea, eta, gaur egun, 7.000 lagun inguruk parte hartzen dute programa horretan.



Ezker-eskuin: Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Uxue Alberdi, 2020ko saioan. TXINTXARRI

Bertso saio literarioa egingo du irakurle txokoak, otsailaren 12an

Sarrerek hamar euro balio dute eta Ilargi, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernetan eros daitezke dagoeneko

Txintxarri

Bertsoak eta literatura gustuko dituzten herritarrek poz galanta hartuko dute jakiten dutenean Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bertso saio literarioa antolatu duela otsailaren 12an, larunbatez. Pandemia tarteko, ezin izango du aurreko urteetako formatua errepikatu: otordurik ez du emango. Edonola ere, jakinarazi du ekitaldia "erakargarria" izango dela. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariak elkartuko ditu Miren Agur Meabe idazlearekin, 18:00etatik aurrera, Xirimiri elkartean. Sarrerek hamar euro balio dute eta Ilargi, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernetan eros daitezke.

Hileroko saioak

Otsailaren 12ko hitzordu berezi horrez gain, hilero-hilero beste batzuk egiten dituzte irakurle txokoko lagunek, astearteetan. Idazle baten lana aukeratu, irakurri eta elkarrekin hitz egiten dute horri buruz, eta zenbaitetan, egilea bera gonbidatzen dute. Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak dinamizatzen du egitasmoa aurten ere, eta saioak 18:30ean hasten dira, kultur etxean. "Irekiak dira, eta beraz, interesa dutenek ez dute aurretik abisatu edo izenik eman behar", jakinarazi dute irakurle txokoko kideek. Otsailaren 15ean, adibidez, Hedoi Etxarte etorriko da, *Sortaldekoak* poesia liburuari buruz solastera. Martxoaren 22an, Edna O'Brien autorearen *Landa aldeko neskak* nobela izango dute hizpide, eta apirilaren 26an, Aste Santuko oporren ondoren, Eneko Aizpuruaren *Bidasoa gora*. Idazlea saiora joango da. Ikasturtea bukatu aurretik, beste bi saio egingo dituzte, maiatzean eta ekainean.

Hurrengo hitzorduak

Irakurle txokoa

- **Otsailak 15:** Hedoi Etxarte, *Sortaldekoak*.
- **Martxoak 22:** Edna O'Brien, *Landa aldeko neskak*.
- **Apirilak 26:** Eneko Aizpurua, *Bidasoa gora*.
- **Maiatzak 17:** Natalia Ginzburg, *Familiako lexikoa*.
- **Ekaina:** zehazteke.



ÇYPGAYQUQPRWYY
PPEQZ ZPAWIPTUWT WWIQKUPPSWPI
PWPEWYZ YQPDIWYDAWYZU WYDEÇIPTYUPW
PYETÇWA OWWRÇPDUPYAK ZUÇYWRÇYEKWIÇPNPY
WPBÇYEZÇPALYYA EQYMPPAN DÇQQITQYUTÇYQ

GÇPAUWPR MAYWITAPWÇSWÇPUNYWPAZ EPWPTÇA
HPPERWYIOÇPTPWZAQZ WPHITWZ EGQWIN DWUGYU
QETÇPA TYXIÇYWMEWYLEÇYTA EYPRI BWATQ
QYPGEÇYLYPAN SWWARTPU ZQAIÇYPGWYUP.

PGÇAUPR EÇYPURÇYPIA
EÇYPGIÇYPN DÇUYP




Gaur inspiratuta jaiki da Hur. Pijama erantzi ere egin gabe, mikroa hartu eta kantari hasi da maiteminduak bezala, baina ez da ongi entzuten, bozgorailuak hots gogaikarriak egiten dituelako. Ezaba itzazu Q, W, P, Ç eta Y guztiak eta jakingo duzu zer ari den abesten.

Mezu gordea

Eta zein da abesti hori kantatzen zuen taldearen izena? Ez badakizu, jarri iruditxo bakoitzari dagokion hizkia ondoko biribilean eta asmatuko duzu. Ondoren, marraz ezazu atera zaizun hori, zure koadernorik maiteenean.




ALFABETOA





Itzala

Hona hemen Garazi, oreka galdu eta egundoko muturrekoa hartu baino lehen. Aurki ezazu bere itzal zuzena.





Margotu

Hemen ikusten dituzun igel hauek munduko igelik koloretsuenak dira, baina zerorrek margotu beharko dituzu. Erabili kolore gorria, urdina, berdea, marroia, horia, beltza eta morea.

Pareak bai!

Konturatu bazara, igel guztiek badute bikotea, hiruk izan ezik. Hiru horietatik bik ez dute parerik, eta hirugarrena hiru aldiz ageri da.


Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



Sudokua

Gauza handiak egin genituen 2021ean, eta are handiagoak egingo ditugu AURTEN. Bete itzazu hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiez (A, U, R, T, E eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zazpikoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zazpi dira guztira.





Egilea: Garbiñe Ubeda

Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Defentsako akatsek baldintzatutako emaitza

Eguzki ISU Leihoak taldeak Eskoriatzaren aurka jokatu du partida Maialen Chourraut kiroldegian. Partida parekatua zirudien; aurkariak, ordea, ongi baliatu ditu akatsak 0-3 gailentzeko. Gainerako taldeen artean, 1. Mailako taldeak bakarrik lortu ditu puntuak

Txintxarri

Bigarren itzuliari ekin dio Eguzki ISU Leihoak taldeak; ez du emaitza onarekin hasi, ordea. Lehen zatia nahiko parekatua izan arren, Eskoriatzak 0-3 irabazi zion Maialen Chourraut kiroldegian jokatutako partidan. Partida irabazteko gogoekin zeudela erakutsi zuten biek, neurketako lehen minututik. Alabaina, fin ibili ziren defentsan, eta ez zuten arrisku handirik sortu.

Eguzki Isu Leihoaken entrenatzaile Jon Arozenak azaldu modura, "nahiko eroso egon ginen bai baloiarekin eta baita defentsan ere".

Atsedenaldirako minutu gutxi geratzen zirela, egoera aldatu egin zen. Falta batean defentsak izandako akats batez baliatu zen Eskoriatza markagailua irekitzeko, eta arazoak hasi ziren etxekoentzat. "Partida maldan gora jarri zitzaigun", onartu du prestatzaileak.



Eguzki ISU Leihoak taldeko jokalaria, baloia mantentzeko borrokan. TXINTXARRI

Zelaira itzultzean, gainera, etxeko taldea ez zen "baloiarekin eroso ibili". Saiatu arren, talde hori-berdeak ez zuen baloia ongi mugitzea lortu. Defentsan ere arazoak izan zituen eta bi akats ongi aprobetxatu zituen Eskoriatzak, baloia Eguzki ISUren sarera bidaltzeko.

Errenta gutxitzen saiatu zen etxeko taldea, baina ezinezkoa izan zitzaion aurkariaren defentsa haustea. Azken emaitza, beraz, 0-3koa izan zen.

Talde gaztea

Denboraldi zaila izaten ari da Eguzki ISU Leihoak taldearentzat; jokalari asko mailara egokitzen ari dira eta ondorioz, orain arteko emaitzak ez dira onak izan: hiru partida irabazi eta hamar galdu dituzte.

Arozenak nabarmendu duenez, Eguzki ISU Leihoak jubenil mailatik igotako jokalari ugariz osatua dago: "Jende gazte asko etorri da taldera, eta pixkanaka senior mailara egokitzen doaz, hasierako salto handi hori gaindituz. Gainera, COVID-19aren ondorioz, jubeniletako urte hoberenak galdu dituztela ere kontuan izan behar da".

Horrez gain, bigarren itzuli hasieran koronabirusak eta lesioek eragin handia izan dutela eta egoera zaildu dela onartu du entrenatzaileak: "Egia da bigarren itzuliaren lehen zati honetan kasu positiboak eta lesio garrantzitsuak medio, gauzak zaildu zaizkigula".

Alabaina, Eguzki ISU Leihoak taldeko kideek ez dute amore emango. Egoera gainditu eta jokalariak maila berrira moldatu ahala taldeak emaitzak hobetzea espero du entrenatzaileak: "Espero dut emaitzak bigarren zati honetan hobetzea".

Hilaren 28an, ordea, hitzordu gogorrari aurre egin beharko dio. Lazkaora bidaiatuko da eta sailkapeneko buru dagoen Gaur Logistika Lazkao KKE izango du aurkari.

2. Mailako partida ez zen Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zen areto futbol partida bakarra izan. Gazteen mailako taldeak Zarautz KE A izan zuen aurrez aurre, hilaren 23an. Partida borrokatua izan arren, gazteek ezin izan zituzten puntuak eskuratu. 2-3 gailendu zen Zarautz.

Gazteen taldea ligako txapelketa jokatzen ari da eta taulako azken postuan dago. Jardunaldi bakarra falta du lehen itzulia amaitzeko. Laskorainen aurka izango da neurketa, hilaren 29an.

Puntu bat gehiago

Sailkapenean hobe kokatua dago lehen mailako Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldea, hirugarren postuan. Hilaren 21ean, Antiguoko Fontaneria Iribarre taldearen aurka jokatu zuen ligako bigarren itzuliko lehen jardunaldia, eta launa berdindu zuen.

Joaneko partidan 2-3 galdu zuten Josu Lopez eta Mikel Escribanoren jokalariek. Beraz, puntu baliotsua lortu du, sailkapeneko lehen postuetan finkatzeko. Egun, 29 puntu ditu, eta bigarren postuan dagoen Oiartzun taldetik oso gertu, puntu bakarrera.

Hurrengo jardunaldian, hilaren 28an, Herrikiderekin neurtuko ditu indarrak Maialen Chourraut kiroldegian. Norgehiagoka 18:00etan hasiko da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Lagun Onak CD - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Garmendipe, Azpeitian.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Zumaiako FT
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA

San Pedrotarra FE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Trintxer, Pasaian.

JUBENILEN 1. MAILA, KOPA

Danena KE - Ostadar SKT A
Larunbata. 17:45. Elbarrena, Zizurkilen.
Ostadar SKT B - Igeltegi de Donostia C.F
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Aizkorri Goierri FT
Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Texas Lasartearra CF - Lagun Onak CD
Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT A - Kostkas KE A
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Arrupe Chaminade CD A - Ostadar SKT B
Igandea. 12:10. Felix Garin, Donostian.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Tolosa CF - Ostadar SKT
Larunbata. 10:30. Usabal, Tolosan.

INFANTILEEN 1. MAILA

Usurbil Udarregi FT A - Ostadar SKT A
Larunbata. 10:00. Harane, Usurbilen.
Texas Lasartearra CF - Urnieta KE
Larunbata. 18:00. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT B - Euskalduna SD
Igandea. 15:35. Michelin kirol gunean.

ERRENDIMENDUKO ALEBINA

Ostadar SKT - Tolosa CF
Igandea. 14:25. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

1. MAILA

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Herrikide
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA

Gaur Logistika Lazkao KK - Eguzki ISU Leihoak
Ostirala. 20:30. Joxe Miguel Barandiaran kirol., Lazkaon.

GAZTEEN MAILA

Laskorain KE - Eguzki AF
Larunbata. 11:00. Usabal, Tolosan.

INFANTIL MAILA

Arizmendi Eskoriatza - Eguzki AF
Larunbata. 09:30. Manuel Muñiz kir., Eskoriatzan.

SASKIBALOIA

SENIOR 2. MAILA

Ostadar SKT - Gráficas Juaristi ZKE
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
Drunkat Hoops - Ostadar SKT (atzeratutako partida)
Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.

SENIOR 3. MAILA

Eibar Saskibaloia B - Ostadar SKT
Igandea 11:30. Ipurua kirol., Eibar.

KADETE ERRENDIMENDU

Panelfisa TAKE - Ostadar SKT
Larunbata. 10:45. Udabal kirol., Tolosan.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Astigarragako Maundarro FKE
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA

SaskiAxular Ulia - Ostadar SKT
Larunbata. 09:30. Axular Lizeoa, Donostian.

INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Bera Bera Zurrila
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

MINI

Ostadar SKT - Centerpoint ISB
Igandea. 10:00. Maialen Chourraut kirol.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Clínica Colina Palencia R.C. - Gesalaga Okelan Zarautz RT
Igandea. 13:00. Nueva Palastera, Palentzian.

EUSKAL LIGA 2. MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Arratiko Zekorrak RT
Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.

18 URTEZ AZPIKOA

Uribealdea RKE - Itsasmendi Gesalaga Okelan Zarautz RT
Larunbata. 12:00. Ardanza, Plentzian.

16 URTEZ AZPIKOA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Lan Lan Ordizia
Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.

IGERIKETA

AXA TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilariak AXA Adin arteko Espainiako txapelketan parte hartuko du.
Larunbata eta igandea. Valdemoro, Madrilen.

TEKNIFIKAZIO SARIA

Buruntzaldea IKTko alebin mailako gazteek Alebin Teknifikazio Sarian parte hartuko dute.
Igandea. 10:00 eta 16:30. Azpeitiako kiroldegian.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar Atletismoa saileko kideek Gipuzkoako Txapelketa lehiatuko dute.
Larunbata eta Igandea. Antonio Elortza Belodromoa, Donostian.

Kluben Kopan hirugarren izan da Buruntzaldea IKT

Buruntzaldea IKTko igerilariek B mailako Kluben arteko Kopa lehiatu dute, Tolosan. Emakumeen txapelketan hirugarren postua eskuratu dute eta gizonezkoetan, berriz, laugarrena. 39 marka pertsonal ere ondu dituzte igeriketa taldeko kideek



Kluben arteko Kopan parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko kideak. BURUNTZALDEA IKT

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariek "urteko zita politenetako bati" egin zioten aurre hilaren 22an eta 23an, Tolosako Usabal kiroldegian, Kluben arteko Kopa. Igeriketa taldeko hamabost igerilarik B mailako emakumezkoen eta gizonezkoen lehian parte hartu zuten. Emakume taldeak podiumeko hirugarren mailara igotzea lortu zuen; gizonezkoenak, berriz, laugarren postua eskuratu zuen. Bi txapelketak kontuan izanik, B mailako hirugarren postua eskuratu zuen Buruntzaldea IKTk. Horrez gain, marka pertsonal ugari ondu zituzten igerilariek. Taldeko kideak pozik daude lortutako emaitzekin.

Txapelketa zirraragarria

Igeriketa taldeko prestatzaile Borja Apeztegiak azaldu duenez, egoerak baldintzatu du aurten B mailan lehiatzeak: "Aurtengoan ezin izan dugu nahi bezala proba programa osoa bete. Horrez gain gaixoaldiak eta bestelako egoerak gure artean ditugula, hasieratik gure burua B koparako aurkeztu genuen, bertan lehia handiagoa izango zelako guretzat eta gure igerilarientzat erakargarriagoa izango zelako ere". Eta ez zuen iragarpenean hutsik egin. Txapelketa zirraragarria izan zen Buruntzaldea IKTko prestatzailearen hitzetan, "saioz saio sailkapena aldatu da; lehen hiruzpalau postuetan aurrera eta atzera mugimenduak gertatu dira". Errelebo probak, esate baterako, "oso lehiatuak izan ziren guztiak, azken metrora arte amore eman gabe lehiatu behar diren horietakoak".

Beroketa ona

Igerilariek "ederki gozatu ahal izan zuten" eta horrek emaitzetan isla izan zuela nabarmendu du. Taldeko kideek 39 marka pertsonal eta taldeko bost hobetu zituzten eta. Zenbait igerilari, gainera, Euskal Herriko gutxienekoetatik gertu egon ziren eta igerilariek Gipuzkoako Txapelketarako beroketa modura hartu dutela onartu du, "Gipuzkoako Txapelketan gutxieneko horien bila joan daitezkeela ikusi ahal izan dute".

Marken artean, Nora Imazek lortutako taldeko 17 urteko lau errekorrak –200 m. lau estilo proba, 2.31, 31; 200 m. libre proba, 2.12,68; 400 m. libre proba, 4.37,15 eta 800 m. libre proban, 9.36,15– azpimarratu ditu Buruntzaldea IKTko kideak.

Era berean, June Lopez eta Haitz Mitxelenaren lana ere nabarmendu nahi izan du. Mitxelenak Master 25-29 mailako taldeko errekor berria ezarri zuen 200 m. lau estiloetan (2.27,43). "Taldearekin entrenatzen duen arren, bere entrenamendu erritmoa baxuagoa da jada, baina sekulako eredua izan zen lehiaketa osoan zehar," azaldu du.

Lopezen kasuan, "denboraldi bat igeriketatik eta lehiaketatik kanpo pasa behar izan duen arren, pixkanaka erritmoa hartzen joan da eta burututako bi probatan eta erreleboan bere marka onenetan aritzeko gai izan zen," aipatu du Buruntzaldea IKTko arduradunak.



Lehen itzuliari amaiera emateko era ezin hobea

Ostadar Saskibaloi saileko Senior 1. Mailako taldeak bi puntuak eskuratu ditu lehen itzuliko azken partidan. Astigarraga Mundarro garaitu du talde urdin-beltzak etxean. Hurrengo jardunaldian atsedena izango du Endika Marrahik zuzentzen duen taldeak

Txintxarri


Garaipena erdietsiz amaitu du lehen itzulia Ostadar Saskibaloia saileko Senior 1. Mailako taldeak. Hilaren 22an, Maialen Chourraut kiroldegian Astigarraga Mundarroren aurka nagusi izan ziren etxekoak, 57-39.

Hala ere, lehen minutuetan ez zen esna ibili taldea. "16:00etako partida luzatu egin zen eta beroketak egiteko denbora gutxi izan genuen, Horrek eragina izan zuen neurketa hasieran; lo atera ginen zelaira", azaldu du Endika Marrahi entrenatzaileak.

Egoera horri itzulia eman eta pixkanaka partidaren erritmoa ezartzen joan ziren urdin-beltzak. Kontraerasoan zein defentsan lan ederra egin zuten etxeko taldeko jokalariek; alabaina, saskiratze gutxi lortu zituzten, eta bost puntuko errenta bakarrik lortu zuen lehen laurdenean.

Ostadar jokoaren jabe izaten jarraitu zuen bigarren laurdenean. Erasoan eroso ibili zen eta saskiratzeak ugariak izan ziren. Aldea handitzen joan zen eta atsedenaldira iristean 30-18koa zen markagailua.

Borrokatuagoa izan zen hirugarren laurdena. Etxeko taldearen nagusitasuna nabarmena izan zen lehen minutuetan: errenta hamazazpi puntura handitzea lortu zuten etxekoek. Hala ere, Astigarragako taldeak ez zuen amore eman, eta bederatzi puntuko partzial bati esker, aldea txikitu eta zortzi puntura jarri zen. Ostadarrek ongi erantzun zuen, eta azken minutuetan beste hiru puntu lortu zituen, jaurtiketa pertsonaletako marratik.



Senior 1. Mailako jokalaria baloia jaurtitzen. TXINTXARRI

Endika Marrahik partida osoan zehar jarraitutako taktikari eutsi zion azken laurdenean. Ongi erantzun zuten jokalariek. eta egindako lanari esker, 16-10eko partziala eta garaipena erdietsi zuen Ostadarrek.

Hurrengo jardunaldian bigarren itzuliari hasiera emango diote Senior 1. Mailako taldeek; Ostadarrek, ordea, ongi merezitako atsedena izango du. Ederki etorriko zaie astebeteko etena senior mailako jokalariei, bigarren jardunaldiko hitzordua prestatzeko. Otsailaren 6an, larunbatarekin, Goierri AYMA, sailkapeneko bigarren postuan den taldea izango baitu aurkari Ostadarrek, Maialen Chourraut kiroldegian.

Eskola Kirolako txapelketak martxan dira berriz ere

Eusko Jaurlaritzak Eskola Kirolako txapelketen jarduna eteten duen COVID-19aren aurkako neurria indargabetu du

Txintxarri

Eusko Jaurlaritzak iragarri duenez, Eskola Kirola egitasmoko txapelketak egitea baimenduko du ostiral honetatik aurrera, hilak 28. Osasun, Kultura eta Hezkuntza sailetako ordezkariak hilaren 25ean bildu ziren, eta neurri murriztailea indargabetzea erabaki. Horren berri izan bezain laster, ohar bat kaleratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta "albiste ona" dela nabarmendu.

Urtea hastearekin batera aurkeztu zuen Lakuak hezkuntzarako protokoloa, eta, besteak beste, Eskola Kirola egitasmoko partaideen entrenamenduak baimendu eta lehiaketak debekatu zituen. Horren aurka erreakzionatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurralde horretako hamazazpi federaziok, eta baita familia ugarik ere. "Ez da inolako ebidentzia zientifikotan oinarritzen eta ez du inolako onurarik osasun egoera hobetzeko", adierazi zuten.

Txapelketak egiteko baimenaren berri izan eta berehala, aldundiak ohar bat kaleratu du, eta nabarmendu "albiste ona" dela. "Eusko Jaurlaritzak entzun ditu bai aldundiaren esakerak, bai lurraldeko federazio eta kirol eragileenak; pozik gaude asteburu honetan eskola kirolari berriro ekitearekin".

Intzako jubenilak, partidaz partida puntuak lortzen

Intza Pilota Elkarteko jubenilek Udaberri Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten Intxurreren aurka, Michelin kirol guneko pilotalekuan. Haritza Diaz De Gereñuk eta Peru Urdanpilletak neurketa gogorra jokatu zuten eta 22-6 garaitu zuten Alegiako bikotea.

Jose Felix Solano prestatzaileak azaldu modura, norgehiagoka borrokatua izan zen. "Tantoak luze eta gogorrak izan ziren, baina etxeko bikotearen segurtasunak eta lan onak puntuak eta partida eskuratzea ekarri zuen".

Kadete mailan, berriz, Beñat Olazabalek eta Xuban Urdalletak ezin izan zioten Bergarako bikoteari aurre egin, Bergarako Udaleko pilotalekuan jolastutako neurketan. Lehen minututik nagusi izan zen aurkaria kantxan, eta emaitza horren erakusle izan zen, 22-8.

Urtarrileko azken asteburuan Intzako pilotariek ez dute partidarik jokatuko. Kadeteek atsedena dute eta jubenilek jardunaldia izan arren, neurketa bertan behera geratu da; Aretxabaleta 2 bikoteko pilotarietako batek positibo eman du. Beraz, aurrerago neurtuko dituzte indarrak.

Beltzek ezin izan dituzte puntuak lortu etxeko partidetan

AVK Bera Bera gailendu da 16 urtez azpiko mailan; Ohorezko Mailako taldeak, berriz, Hernaniren aurka galdu du

Txintxarri

Ez da jardunaldi emankorra izan Gesalaga Okelan Zarautz taldearentzat, ezta harrobiko 16 urtez azpiko taldearentzat ere. Gipuzkoarren arteko lehia izan zen bi mailetan: Ohorezko Mailako taldeak Hernani izan zuen aurrez aurre eta gaztetxoek, AVK Bera Bera, eta bietan aurkaria gailendu zen.

Michelin kirol gunean jokatu zen 16 urtez azpiko mailako lehia, hilaren 22an. Lehen minutuak borrokatuak izan ziren arren, Donostiako taldea metroak irabazi zituen eta, zigor-ostiko bati esker, hamabigarren minutuan ireki zuen markagailua.

Ongi eutsi zieten beltzek Bera Beraren erasoei. Alabaina, jokalari bat kaleratua izan zen, eta hortaz baliatuz, entsegua eta gauzatzea lortu zuen arerioak. Lehen denbora amaitzear zegoela, gainera, beste entsegu eta gauzatze bana egin zituen arerioak.

Bigarren zatian ere gogor borrokatu ziren bi taldeak. Nahiz eta beltzen 16 urtez azpiko jokalariak gogotik saiatu, ezin izan zuten aurkariaren entsegu marra igaro. Donostiarrek, ordea, azken minutuan lortu zuten sari,a entsegu eta gauzatzeen bitartez. Norgehiagoka 0-24 amaitu zen.


Jokalaria jauzian baloia hartzen. TXINTXARRI

Igoerarik ez

Astin ere Gesalaga Okelan Zarautz eta Hernaniren arteko partida gogorra eta bizia ikusi ahal izan zen. Hernaniarrak nagusi izan ziren eta 17-39 irabazi zuten.

Lehen fasea amaituta, Zarautzek ez du igoera jokatzeko sailkapenik lortu. Bigarren fasea hasi baino lehen, ordea, atzeratuak zituen bi partida jokatu beharko ditu. Lehena, Clinica Colina Palencia R.C.ren aurka, hilaren 30ean.

Erregionalak, igoerako lehen puntua eskuan

Igoera faseko hirugarren jardunaldian, Behobia taldearen aurka bana berdindu du talde urdin-beltzak. Lehen neurketetako emaitzak aldeko izan ez arren, Ostadar ongi lehiatzen ari da eta horrela jarraitzea espero du Mikel Zarraga entrenatzaileak

Txintxarri

Hiru jardunaldi behar izan ditu Ostadar SKTren Erregionalen 1. Mailako taldeak igoera faseko lehen puntua eskuratzeko. Mikel Zarragaren taldeak Behobiaren aurka neurtu zituen indarrak hilaren 22an.

Bi taldeak partida irabazteko gogoekin atera ziren Michelin kirol guneko zelaira, eta gogor borrokatu zuten. Bosgarren minutuan Iker Iñurritak sartutako gol bati esker, Ostadarrek markagailuan aurreratzea lortu zuen.

Egoerak Behobia desorekatuko zuela zirudien arren, aurkariak bere xederari eutsi zion. Mikel Zarragak zuzentzen dituen jokalariak, berriz, garaipena finkatzeko bigarren golaren bila joan ziren, baina ezin izan zuten talde irundarraren defentsa gainditu.

Azkenik, talde urdin-beltzaren sarea zulatzea lortu zuen arerioak. Banako berdinketarekin, bi taldeak garaipenaren golaren bila jarraitu zuten azken minutura arte. Ez zen baloi gehiagorik atean sartu eta beraz, puntuak banatu behar izan zituzten bi taldeek.



Ostadarreko jokalaria, baloiarekin ihesi. TXINTXARRI

Maila handia

Era horretara, Ostadarrek sailkapen faseko lehen puntua poltsikoratu du. Bolada on baten hasiera izatea espero du.

Mikel Zarraga entrenatzaileak igoera fasea ongi hasi ez dutela onartu du. Emaitzak lagun izan ez arren, lehen jardunaldiko eta Behobiaren aurkako partidak borrokatu zituztela azpimarratu du: "Ez gara ondo hasi emaitzak ikusita, eta joko aldetik ere akatsak egiten ari gara. Hori horrela izanda ere, lehenengo partida eta azken hau lehiatu ditugu".

Maila handiko taldeei aurre egin beharko dietela eta partidak gogorragoak izango direnaren jakitun da talde urdin-beltzeko prestatzailea, eta horregatik, igoera fasea "gogorra bezain ederra izatea espero dugu, partida mamitsuagoekin".

Hori horrela izan dadin, partida guztiak lehiatzea xede dutela zehaztu du: "Ez daukagu emaitzei dagokienez helbururik. Gure intentzioa partida guztiak borrokatzea da, eta ondorioz neurketak aurrera ateratzeko aukera gehiago izatea".



Lasarte-Oria Traileko kideak Etzala mendiko gailurrean seinalearekin. LOTME

Etzala mendira iritsi da 'Tontor bat, izen bat' egitasmoa

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideek, ekimenarekin jarraituz, kartela jarri dute Urnietako mendian

Txintxarri

2021. urteko apirilean Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) kideek *Tontor bat, izen bat* egitasmoari hasiera eman zioten. Horren bitartez, taldeko kideek identifikatu gabe dauden inguruko mendi tontorrak ezagutzera eman nahi dituzte. Hilabete hauetan guztietan Buruntza, Indo, Mendibeltz... identifikatu dituzte. Azkena Etzala izan da (Urnieta). Taldeko kideak, giro onean, Besabitik atera eta hemezortzi kilometroko ibilbidea egin zuten Etzala mendira, hilaren 22an. Gailurrera iritsi eta izena eta altuera (813 m.) zehaztuta duen seinalea ezarri zuten.

Horrez gain, urteari amaiera eta hasiera emateko Txindokira eta Andatzara egin zuten irteera taldeko kideek.

Bazkide kanpaina

Bazkide berrien kanpaina martxan dutela ere gogorarazi dute. LOTMEren webgunean izena eman behar dute interesatuek. Edozein kezka edo galdera erantzuteko *dirección@lasarteoriatrail.com* helbidea zein 623 03 03 73 whatsapp zenbakia jarri dituzte herritarren eskura.

Guisadok brontzezko domina Gipuzkoako txapelketan

LOKEko Unai Guisado eta Mario Herrero Junior Mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu dira

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judokak, pixkanaka, txapelketetan murgiltzen ari dira. Hilaren 22an, junior mailako gazteen txanda izan zen. Gipuzkoako txapelketa antolatu zen Hondarribian eta LOKEk bi ordezkari izan zituen: Unai Guisado eta Mario Herrero. Biak brontzezko dominaren lehian izan ziren, baina bakarrak lortu zuen saria, Guisadok.

Azken horrek 60 kiloko mailan parte hartu zuen. Lehen borrokan ez zuen zorte handirik izan, eta hirugarren postuaren lehian sartu zen. Horretan hiru aurkariak gainditu zituen eta brontzea jantzi zuen gazteak. Gorka Aristegi LOKEko prestatzailearen hitzetan "oso maila ona" erakutsi du txapelketan.



Guisado eta Herrero judokak. LOKE JUDO

Mario Herrerok, berriz, 66 kiloz azpiko mailan lehiatu zuen. Guisadoren antzera, lehen borrokan ez zuen zorterik izan, eta bigarren aukeran sartu zen; alabaina, bi borroka irabazi eta, hirugarren postua jokoan zuela, sariak ihes egin zion.

Bi judokek martxora arte itxaron beharko dute berriro tatamian borrokatzeko. Hil horren 5ean Euskadiko txapelketa jokatuko dute Hernanin. Kadete mailako judokek, ordea, otsailean 12an eta 13an Espainiako Kopako proban parte hartuko dute, Valladoliden.




OSTADAR IPAR MARTXA

Kukuarri eta Oriora bisita

Ostadar Ipar martxa taldeko kideek Oriora ibilbidea egin zuten hilaren 22an. Hotzari aurre eginez, Lasarte-Oriatik atera ziren eta bidea egin ahala eguzkiaren izpiek eta mugimenduak berotu zizkien gorputzak. Kukuarrira iristean, hamaiketakoa egin zuten eta indarrak berreskuratu zituzten azken zatiari aurre egiteko. Amaitzean, San Martin baselizara eta Oriora jaitsi ziren.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Nerea
Zorionak maitia. Mila muxu familiaren partez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 28	GIL
LARUNBATA, 29	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 30	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 31	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 1	URBISTONDO
AZTEAZKENA, 2	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 3	DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

***URTE OSOKO GUARDIAK* APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINTZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINTZA

Etxeko lanak egin eta bi pertsona adindu zaintzeko pertsona behar da. Interesdunek mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta soziosanitarioan lanbide-prestakuntza izan behar dute. Salbuespenezko edo aldi bateko gaikuntzak ere balio du. Kontratua, nomina eta Gizarte Segurantzan alta ematea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia: 656 41 15 10

Klase partikularrak emateko pertsona behar da. DBH mailan. interesatua bazaude jarri harremanetan *irakasle@yahoo.com* bidez.

ESKARIA

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan.

Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Etxe aldaketa dela eta, zenbait altzari saltzen ditugu: bi plazako larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari dotorea, estilo klasikokoa, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest.Harremanetarako zenbakia: 616 83 11 52.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA **Janari bilketa.** Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak janaria bilduko du, ondoren herrialde horretan bizi diren errefuxiatuei bidaltzeko. Eroski eta SuperBM supermerkatuetan postuak jarriko dituzte, bertan erosketak egiten dituzten bezeroek laguntzea errazago izan dezaten. Hauek dira eman ditzaketen produktuak: arroza, azukrea, konpresak, kontserbak, lekaleak (babarrunak, dilistak, garbantzuak...) eta pasta. Goizeko hamarretatik arratsaldeko zortzietara ariko dira taldeko kideak aipatutako produktuak biltzen. Hilaren 24tik 28ra gauza bera egin dute, herriko ikastetxeetan. Eragilea osatzen duten pertsonek lasarteoriatar guztiak animatu dituzte egitasmoarekin bat egitera.
Hilaren 29an, larunbatean, 10:00etatik 20:00etara, Eroski eta SuperBM supermerkatuetan.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA **Txapelketa**
Faktoria egitasmoko gazteek mus txapelketa antolatu dute.
Xirimiri elkartea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA **Mobilizazioa**
Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteei elkartasuna adierazteko argazkia ateratzera deitu du Ernaik.
Okendo plaza, 19:30ean.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Okendo Zinema Taldeak *Libertad* filma proiektatuko du. Sarrerek sei euro balio dute.
Manuel Lekuona, 20:30ean.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA **Janari bilketa**
Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak janaria bilduko du herrialde horretan bizi diren errefuxiatuentzat. Hauek dira herritarrek eros ditzaketen produktuak: arroza, azukrea, konpresak, kontserbak, lekaleak (babarrunak, dilistak, garbantzuak...) eta pasta.
Eroski eta SuperBM, 10:00etatik 20:00etara.

ANDOAIN **Ikuskizuna**
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Kuikui* ikuskizuna taularatuko dute.
Bastero, 16:30ean.

ANDOAIN **Kontzertua**
Herdoil eta Unidad Alavesa taldeek kontzertuak emango dituzte. Zortzi euro balio dute sarrerek.
Gaztetxea, 22:00etan.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA **Zinema**
El valle de las linternas filma proiektatuko dute. Sarrerek lau euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Manuel Lekuona, 17:00etan.

USURBIL **Proiekzioa**
Apaiz kartzela dokumentala emango dute, eta ostean, solasaldia egingo. Sarrerak *www.usurbilkultura.eus* atarian eros daitezke.
Sutegi, 18:00etan.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Cerca de ti filma proiektatuko dute. Sarrerek sei euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTELEHENA 7

LASARTE-ORIA **Erakusketa**
Realeko Urpekaritza sailak, Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak XIV. Itsaspeko Zinema Zikloa antolatuko dute. Jardueretako bat argazki erakusketa da. Sarrera, doan. Otsailaren 25era arte egongo da zabalik.
Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. solairua, 17:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA **Proiekzioa**
Realeko Urpekaritza sailak, Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak XIV. Itsaspeko Zinema Zikloa antolatuko dute. Otsaileko lau astelehenetatik hirutan film, dokumental eta antzekoak proiektatuko dituzte.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEAZKENA 9

LASARTE-ORIA **Opera**
Giuseppe Verdi konpositorearen Otello operaren proiekzio digitala egingo dute. Sarrerek 7,5 eta bederatzi euro artean balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Libertad'
Ostirala 28
20:30.

'El valle de las linternas'
Igandea 30
17:00.

'Cerca de ti'
Igandea 30
19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Moonbound'
Igandea 30
17:00.

'Knock, Knock, It's Mom!'
Igandea 30
19:30.
Astelehena 31
19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

'Nightmare Alley'
Ostirala 28
16:40, 21:55.
Larunbata 29
12:00, 15:45, 19:00, 21:55.
Igandea 30
12:00, 18:00, 21:55.

'Spider-Man: No Way Home'
Ostirala 28
15:50, 18:20, 21:40.
Larunbata 29
12:00, 15:50, 18:20, 21:40.
Igandea 30
12:00, 15:50, 18:20, 21:40.

'La abuela'
Ostirala 28
17:15, 19:45, 22:15.
Larunbata 29
12:05, 17:15, 19:45, 22:15.
Igandea 30
12:05, 17:15, 19:45, 22:15.

'King Richard'
Ostirala 28
16:00, 18:40, 21:15.
Larunbata 29
12:15, 16:00, 18:40, 21:15.
Igandea 30
12:15, 16:00, 18:40, 21:15.

'Harry Potter eta Sorgin Harria'
Ostirala 28
15:45, 19:05.
Larunbata 29
12:10, 15:40, 19:05.
Igandea 30
12:10, 15:40, 19:05.

'Scream'
Ostirala 28
15:55, 19:10, 22:00.
Larunbata 29
12:10, 15:55, 19:10, 22:00.
Igandea 30
12:10, 15:55, 19:10, 22:00.

'Belfast'
Ostirala 28
15:50, 19:15.
Larunbata 29
12:15, 15:50, 19:15, 21:45.
Igandea 30
12:15, 15:50, 19:15, 21:45.

'Sing 2'
Ostirala 28
15:45, 18:30.
Larunbata 29
15:45, 18:30.
Igandea 30
15:45, 18:30.



LABURPENA

'Cerca de ti'
Zuzendaria: Uberto Pasolini. **Gidoia:** Uberto Pasolini. **Argazkia:** Marius Panduru. **Musika:** Andrew Simon McAllister. **Ekoizleak:** Picomedia, Digital Cube, RAI Cinema, Eurimages, Romanian National Center for Cinematography, Northern Ireland Screen. **Herrialdea:** Erresuma Batua (2020). **Iraupena:** 96 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** James Norton, Daniel Lamont, Eileen O'Higgins, Chris Corrigan.

Hil ala biziko zeregina

Michael semea hezteaz arduratzen da John: 35 urte ditu, eta leihoak garbitzen egiten du lan. Medikuarenera joan, eta lur jota utziko duen albiste bat jasoko du: hilabete gutxi batzuk besterik ez zaizkio geratzen. Bestela esanda, laster hilko da. Egoera horren aurrean, seme txikiarentzat familia berri eta perfektu bat bilatzen hasiko da, eta haurra babesten, ez duelako nahi hark errealitate gordina nolakoa den ezagutzea.

Uberto Pasolini zuzendariaren film hau benetan gertatutako historia batean oinarrituta dago, eta kritikaren harrera ona jaso du. Besteak beste, lanari buruz esan dute "oso hunkigarria" dela, eta aktoreek "oso lan ona" egin dutela. Zenbait sari jaso ditu.



EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK, urtarrilaren 27tik otsailaren 4ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak…).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko titulua lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (1-2 mailak).**





Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!

Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea, 1º 3 • Lasarte-Oria • *www.epalasarte.eus*

Ttakun 30urte

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSen
KUIKUI LIBURU + DISKOA zozkatuko ditugu.
Eman izena urtarrilaren 31 baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943-37 14 48 zenbakira deituta eta 646 82 44 66 (whatsapp)

Pirritx, Porrotx eta Marimotots



